

# AITAREN LARRUA

**Tripak**




eztena

**Harremanetarako:**  
EZTENA Liburuak  
eztena@liburuak.eus  
[www.eztena.liburuak.eus](http://www.eztena.liburuak.eus)

**Izenburua:** ..... Aitaren Larrua  
**Egilea:** ..... Tripak  
**Argitaratzailea:** ..... Eztena jaialdia – Zizt! kultur elkarte.  
**Ezaugarriak:** ..... Antzerkia. 42 orrialde. 14×20cm.  
**Hizkuntza:** ..... Euskara.  
**Argitalpen data:** ..... 2018ko Ekaina.  
**Lizentzia:** ..... Creative commons.  
**ISBN:** ..... 978-84-09-02211-3

## Aitaren larrua



Bazen behin larru bat. Larruak ez zekien nondik zetorren, nor zen bere ama eta nor zen bere aita. Lurretik sortu zela bazekien, bertan lo eta bizi zelako, baina ez zen akordatzen bere sorreraz. Urteak eman zituen lurrean zain, baina, denbora joan eta denbora etorri, konturatu zen mugitu egin behar zela, bizidun modura bere nortasuna bilatu behar zuela. Lurretik arrastaka ibili eta gero lortu zuen saltoak egiten ikastea, denboraz hegan egiten ikasi zuen. Egun batean, hegan zela, zerbaiten kontra txokatu zen. Itsatsita geratu zen estatua baten kontra. Estatua gizon batena zen

## Biografiak

### Tripak

Tripak bost emakumek osatzen dugu orain: Maite Mugerza, Mayi Martiarena, Marina Suarez, Andrea Berbois eta Natalia Suarez. Kolektiboa Arte ederretan ezagututako gutako hiruk sortu genuen, 2014an. Taldea defintzeko ahizpak, lagunak eta amoranteak garela esan dezakegu eta elkarrekin maila oso ezberdinetan hazi gara: emozionalki, artistikoki, kolektiboki.

Kolektibo bezala Baratzaren aretoan jaio ginen, Parasite konpainiari esker, 2013an. Haiek ere, gure lagunak bilakatu dira. Haiekin batera gorputzaren eta eszenaren munduan murgildu ginen, eta gure irriek kolektiboa eta gure lehenengo pieza Maite sortzera eraman gintuzten. Maite beranduago elkarrekin deskubritu genuen lan egiteko moduarekiko kontaktua izan zen. Parasiterekin ikasten eta entrenatzen genuen heinean, sorkuntza propioarekin jarraitu genuen eta Aitaren Larrua jaio zen. Pieza horrekin gure lan egiteko

era definituko zuen lan prozesu sakonagoan murgildu ginen. Obrak fase asko izan zituen, espazio eta festibal anitzetatik igaro zen, 2016an amaiera eman genion arte. Gure azken sorkuntza Urruna deitzen da eta berdinean gabilta: bila, gure munduei forma ematen.

## **Maite Mugerza Ronse**

Elgoibar, 1988. Bermeon bizi da. Arte Ederretan Lizentziatua EHUUn eta Salvador de Bahíako unibertsitatean (Brasil). Irakaskuntzarako masterra ere Leioan burutu zuen, pinturan espezializatuz. Duela urte batzuk gorputz adierazmena deskubritzen eta ikertzen hasi zen mugimenduaren eta keinuaren bidez, sormen laborategi batean, Gasteizen, eta hainbat artistarekin batera Tripak kolektiboa sortu zuen, munduarekiko bizipen berezi bati forma emateko desira komunarekin.

## **Marina Suarez Ortiz de Zárate**

Gasteiz, 1988. Arte Ederretan lizentziatua Leioako EHUUn eta Cluj Napocako (Rumania) UADen. Txikitatik antzerkiak erakarrira, 2012an Gasteizeko Antzerki eskolan hasi zituen ikasketak. Urtebete geroago Baratza Aretoa eta Parasite konpainia ezagutu zituen, geroago lankide bihurtu izan direnak. Bere buruari arte eszenikoek zer eskaini diezaioketen galdetzen jarraitzen du, barnean daramatzan bibrazio artistikoak azalertzeko. Materialak eta gorputzak kuriositatez bilatzen ditu, bakoitzaren hizkuntzetan arakaturik, horien egia topatu nahian.

## **Mayi Martiarena Litago**

Deba, 1987. Arte Ederretan lizentziatua, eskultura arloan espezializatu zen. Objektu eskultorikoa abiapuntutzat hartuz, bideoa, marrazkia eta pintura landu izan ditu. Goi mailako ikasketak amaitu eta gero, gorputzaren eta espazioaren bidez plastikoa dena lantzen igaro zituen ondorengo urteak. Era zuzen eta naturalean «objektua» arlo eszenikoan integratu zuen. Momentu honetan objektuaren bidezko espresioan sakontzen jarraitzen du, marrazketa, jantzien eta oihalen sorkuntza edo gorputzaren barne indarren ikerketa direla medio.

## **Andrea Berbois**

Eibar, 1988. Musika giroan hezia, 3 urterekin hasi zen biolina jotzen Suzuki Metodoan. Munduarekiko pasio eta eutsiezineko jakin-min eta espresio propioaren beharrarekin, Filosofian eta Biolineko

Interpretazioan lizentziatu zen azkenik. Egun, pedagogia ikasketak egiten dihardu hala nola soinu eta gorputzaren erabilera berrietan esperimentatzen.

## **Natalia Suarez Ortiz de Zárate**

Gasteiz, 1994. Bilbon bizi da eta bertan ikasten du. Leioako EHUn eta Lisboako FBAULen Arte Gradua amaitu eta urtebete geroago EHUko Pintura Masterrean matrikulatu zen, egun ikasten ari dena. Bere azkenengo sei urteetan zirkuan aritu da, aire akrobazien munduan barne. Tripak kolektiboarekin bat egin zuenetik, arte eszenikoak, arte plastikoen oso era antzekoan, errealitate berriak sortzeko tresna bilakatu dira, bertatik esku hartzeko.